Agintariak eta Langileria

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

5564

EBAZPENA, 2009ko urriaren 6koa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen aske bidez betetzeko deialdi publikoa iragartzeko Lehendakaritzako idazkari nagusiak 2009ko uztailaren 8an emandako ebazpenaren laugarren oinarrian ezarritakoaren arabera (uztailaren 17ko EHAA, 136. zk.), honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Alicia Sobrón Ortiz de Elguea anderea goi-kargudunaren idazkari izendatzea Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritzan (520010 kodea, 120. dotazioa).

Bigarrena.– Izendapen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarain argitaratzen den egunean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Administrazio-bideari amaiera ematen dion ebazpen honen aurka, aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Lehendakaritzako idazkari nagusiari, jakinarazpena jaso eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urriaren 6a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.

Autoridades y Personal

Nombramientos, Situaciones e Incidencias

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

5564

RESOLUCIÓN de 6 de octubre de 2009, del Secretario General de la Presidencia, por la que se resuelve la convocatoria para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 46.2.c de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, y en la base cuarta de la Resolución de 8 de julio de 2009 (BOPV n.º 136, de 17 de julio), del Secretario General de la Presidencia, por la que se anunciaba convocatoria pública para la provisión, por el sistema de libre designación, de un puesto de trabajo vacante en este Departamento,

RESUELVO:

Primero.– Nombrar a Dña. Alicia Sobrón Ortiz de Elguea, Secretaria de Alto Cargo, código 520010, dotación 120, en la Dirección de Estudios y Régimen Jurídico.

Segundo.– Este nombramiento surtirá efectos el mismo día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Tercero.– Contra la presente Resolución, que agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante el Secretario General de la Presidencia, en el plazo de un mes, a partir del día siguiente al de su publicación en el BOPV, o recurso contencioso-administrativo, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación de la Resolución en el BOPV.

En Vitoria-Gasteiz, a 6 de octubre de 2009.

El Secretario General de la Presidencia,
JOSÉ MANUEL SALINERO FEIJOO.